

GALDAKAON, HERRITARREN IRITZIA JASOTZEKO, AGINTALDI ERDIKO INKESTA

IKERKETA KUANTITATIBOA

METODOLOGIA OHARRAK

FITXA TEKNIKO:

ERABILITAKO TEKNIKA:

UNIBERTSOA: Galdakako 18 urtetik gorako biztanleria. EUSTATen azken datuen arabera, 21.564 biztanle.

LAGINA: 378 herritar.

LAGINKETA: laginketa probabilitikoaren metodologia erabili da, zehazki geruzazko laginketa estratifikatuaren bidez. Horren bidez, populazioa azpitalde edo geruzetan banatu da —adin-tartea, generoa eta auzoaren arabera—, eta talde bakoitzetik proportzionalki eta ausaz hautatu dira inkestatuak.

KANALA: inkesta telefonikoak (%74) eta online inkestak (%26).

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien arabera diseinatu da eta Udal arduradunekin kontrastatu da. Galdetegia elebiduna izan da, inkestatuek euskaraz eta gaztelaniaz erantzuteko aukera izateko.

LANDA-LANA: 2025eko maiatzaren 27tik ekainaren 11ra.


AKATS TARTEA: $\pm\%5,0$ lagin osoarentzat, %95eko konfiantza mailan.

LAGINAREN EZAUGARRIAK

Inkestatuaren generoa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	192	50,9
Gizonezkoa	186	49,1
Guztira	378	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Adina

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
18-34	70	18,6
35-49	84	22,3
50-64	102	26,9
65+	122	32,2
Guztira	378	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




**Haztatutako datuak*

LAGINAREN EZAUGARRIAK

Eremua

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Berezikoetxe eta Zabalea	106	28,1
Kurtzea, Zabalgane eta Tximelarre Bekoa	103	27,3
Urreta, Urtebieta, Zuhatzaurre eta Tximelarre Goikoa	92	24,4
Aperribai, Olabarrieta, Txistulanda eta Jugu	39	10,3
Upomendi, Zuatzu, Bengoetxe, Troka eta Ergoien	23	6,2
Altamira, Askarri, Gumuzio, Kortederra, Padrola, Artola, Basozabal, Bekea, Bekelarre, Itzaga, Basabe, Belategi, Egia, Elexalde, Errekalde, La Mina, Uraburu, Usargoiti eta Olabarri	14	3,7
Guztira	378	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Zein da zure lan egoera?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lan ordainduan (jardun osoan)	182	50,5
Lan ordainduan (jardun murriztuan)	19	5,4
Langabezian	16	4,4
Etxeko langilea	12	3,2
Ikaslea	8	2,2
Ikasi + lana	2	0,7
Jubilatu / pentsionista	121	33,7
Guztira	360	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




*Haztatutako datuak

LAGINAREN EZAUGARRIAK

Zein da zure euskara maila?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	162	44,7
Ulertu bai, hitz egin nekez	65	18,1
Ez ulertu ez hitz egin	135	37,3
Guztira	362	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



EMAITZAK

GALDAKAOKO HERRITARREN ARAZO NAGUSIENAK ETA LEHENTASUNAK

- Galdakako herritarrak, oro har, nahiko asebeteta daude herriarekin bizitzeko leku moduan. Inkestatuen %62,2k 7 eta 8 arteko balorazioa eman dute, hau da, balorazio ona. %20,3k oso balorazio ona eman dute (9-10 puntu), beraz herritarren ia laurdena oso gustura dago Galdakaon bizitzearekin. Beste alde batetik, %16,3k erdipurdiko balorazioa eman dute (4-6), eta %1,1ek soilik balorazio txarra (0-3), asebetetze maila oso baxua adieraziz. Batez beste 7,5eko balorazioa egiten dute, orain hiru urte baino hiru hamarreko gutxiago.
- Herritarren iritziz, aparkaleku falta da udalerriko arazo nagusia, inkestatuen %27,4k hori aipatu baitute. Horren atzetik, garraio publikoaren gabeziak eta mugikortasun arazoek kezkatzen dute herritarren zati handi bat (%17,5). Etxebizitzaren arazoak —eskaintza urria eta prezio altuak— ere nabarmendu dira (%11,3) gai garrantzitsuen artean. Segurtasun falta (%5,8), aisialdirako guneen gabezia (%4,8) eta kaleen garbitasuna (%3,9) bezalako gaiak ere aipatu dira, baina portzentaje apalagoetan. Bestalde, %4,2k adierazi du Galdakak ez duela arazorik. Oro har, azpiegiturak, elkarbizitza, komertzio falta edo zerbitzu publikoekin lotutako gaiak %3tik beherako aipamenekin ageri dira, bigarren mailako kezka gisa.
- Galdetutako pertsonen kezka pertsonal nagusia aparkaleku falta da (%18,9), eta horrek berriz ere erakusten du gai hau herritarren bizitzan, herri mailako gaiekin lotuta, eragin handiena duenetakoa dela. Ondoren, etxebizitzarekin lotutako arazoak (%12,6) eta garraio publikoa eta mugikortasun zailtasunak (%12,3) agertzen dira, oso hurbileko ehunekoekin, hiru gai horiek direla gehien aipatutako kezkak berretsiz. Bestalde, %11,6k adierazi dute ez dutela kezka pertsonalik. Segurtasun falta (%10,2) eta aisialdirako guneen gabezia (%5,2) ere nabarmendu dira, nahiz eta azken hau lehenengo blokearekin alderatuta maila baxuagoan. Gainerako gaiak —garbitasuna (%4,4), azpiegiturak (%3,3), elkarbizitza arazoak (%2,5), eta abar— portzentaje txikiagoetan aipatu dira.
- Galdakako herritar gehienek gaur egungo egoera positibotzat jotzen dute: %6,8k "oso ona" eta %57,5ek "nahiko ona" dela adierazi dute, hau da, herritarren %64,3k oro har egoera ona dela uste dute. %22,2k "ez ona, ez txarra" esan dute, eta gutxiengo batek —%12,5ek "nahiko txarra" eta %1,0ek "oso txarra"— ikuspegi negatiboa dauka.
- Etorkizunari begira, gehiengoak (%59,8) uste du egoera berdin jarraituko duela sei hilabete barru. Hobetuko dela diotenak (%16,6) eta okerrera egingo duela uste dutenak (%16,8) portzentaje oso antzekoetan daude. Bestalde, %6,7k ez du iritzirik eman edo ez dakiela adierazi du.


GALDAKAOKO HERRITARREN ARAZO NAGUSIENAK ETA LEHENTASUNAK

GALDAKAO HERRIAREKIKO ASEBETETZE MAILA

Esango zenidake zein neurritan zauden asebeteta zure herriarekin, bizitzeko leku moduan? 0tik 10erako eskalan: 0k esan nahi du ez zaudela batere asebeteta eta 10ek erabat asebeteta zaudela.

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso balorazio ona (9-10)	77	20,3
Balorazio ona (7-8)	235	62,2
Erdipurdiko balorazioa (4-6)	62	16,3
Balorazio txarra (0-3)	4	1,1
Guztira	378	100,0
Batez bestekoa (0-10)	7,5	

Iturria: Aztiker, Galdakaoako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




GALDAKAOKO HERRITARREN ARAZO NAGUSIENAK ETA LEHENTASUNAK

GALDAKAOKO ARAZORIK GARRANTZITSUENA

Zure ustez, zein da Galdakaok duen arazorik garrantzitsuenak? (GALDERA IREKIA)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aparkaleku falta	104	27,4
Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak, metroa	66	17,5
Etxebizitzari lotutako arazoak, etxebizitza eskaintza txikia, garestia...	43	11,3
Segurtasun falta (lapurretak, jazarpen egoerak, argiztapen eskasa...)	22	5,8
Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia, gune berdeak...)	18	4,8
Galdakaok ez du arazorik	16	4,2
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	15	3,9
Azpiegitura publikoak eta beren egoera	13	3,4
Komertzio falta, herriko bizitza, kaleko girorik ez...	12	3,1
Elkarbizitza arazoak (inzibismoa, zarata, txakurrak...)	8	2,1
Kaleen egoera, argiztapena, irisgarritasuna	7	1,8
Adineko pertsonen arazoak	4	1,1
Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia	4	1,1
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	4	1,1
Trafikoa	4	1,0
Euskal gatazka eta bere ondorioak (biktimak, mota desberdinetako biolentzia, presoak...)	2	0,6
Auzoen zaintza, auzo batzuk abandonatuta...	2	0,5
Administrazio oso urruna, burokrazia	2	0,5
Gazteekin lotutako gaiak	1	0,3
Haur eta gazteen hezkuntza	1	0,3
Euskararen egoera	1	0,3
Ingurumenarekin lotutako gaiak	1	0,2
Immigrazioa modu kohesionatzailean kudeatzea	1	0,2
Besterik. Zein?	7	1,9
ED/EE	21	5,6
Guztira	378	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




GALDAKAOKO HERRITARREN ARAZO NAGUSIENAK ETA LEHENTASUNAK

HERRITARREN KEZKA NAGUSIENA

Eta zein da pertsonalki zure kezka nagusiena?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aparkaleku falta	71	18,9
Etxebizitzari lotutako arazoak, etxebizitza eskaintza txikia, garestia...	48	12,6
Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak, metroa	47	12,3
Ez du kezkarik	44	11,6
Segurtasun falta (lapurretak, jazarpen egoerak, argiztapen eskasa...)	38	10,2
Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia, gune berdeak...)	20	5,2
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	17	4,4
Azpiegitura publikoak eta beren egoera	13	3,3
Elkarbizitza arazoak (inzibismoa, zarata, txakurrak...)	9	2,5
Besterik. Zein?	8	2,1
Kaleen egoera, argiztapena, irisgarritasuna	6	1,6
Haur eta gazteen hezkuntza	6	1,6
Komertzio falta, herriko bizitza, kaleko girorik ez...	6	1,5
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	6	1,5
Emakumeen kontrako biolentzia	5	1,2
Gazteekin lotutako gaiak	4	1,2
Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia	4	1,2
Trafikoa	4	1,0
Euskararen egoera	3	0,8
Auzoen zaintza, auzo batzuk abandonatuta...	3	0,7
Administrazio oso urruna, burokrazia	3	0,7
Arazo ekonomikoak, krisia	3	0,7
Ingurumenarekin lotutako gaiak	3	0,7
Euskal gatazka eta bere ondorioak (biktimak, mota desberdinetako biolentzia, presoak...)	2	0,6
Adineko pertsonen arazoak	2	0,4
Immigrazioa modu kohesionatzailean kudeatzea	1	0,4
ED/EE	4	1,1
Guztira	378	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




GALDAKAOKO HERRITARREN ARAZO NAGUSIENAK ETA LEHENTASUNAK

BIZI DUGUN EGOERAREN BALORAZIOA

Orokorrean gaur egun bizi dugun egoera nolakoa dela esango zenuke? Oso ona, nahiko ona, nahiko txarra edo oso txarra.

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ona	26	6,8
Nahiko ona	217	57,5
Ez ona, ez txarra	84	22,2
Nahiko txarra	47	12,5
Oso txarra	4	1,0
Guztira	377	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Eta sei hilabete barru egoera hobea edo okerragoa izango dela uste duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Egoera hobea	63	16,6
Berdina	226	59,8
Egoera okerragoa	64	16,8
ED/EE	25	6,7
Guztira	378	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

- Galdakaoko Udalari buruzko pertzepzioa, oro har, nahiko positiboa da baina ñabardurekin. Inkestatuen %29,5ek uste dute Udala herriko arazoak konpontzen ari dela, eta %39,8k dio Udalak badakiela nola konpondu, baina denbora gehiago behar duela. Hau da, herritarren ia %70k Udalaren gaitasunean konfiantza maila bat erakusten dute, nahiz eta emaitzak ez diren berehalakoak. Bestalde, %10,9k dio Udalak ez dakiela arazoak nola konpondu, eta %5,5ek uste du arazo nagusiak ez direla Udalaren eskumenekoa. %14,4k ez du iritzirik eman edo ez daki.
- Oposizioaren lanari dagokionez, ikuspegiak zatituago daude eta iritziz kritikoagoa ageri da. %17,6k uste dute oposizioak proposamenak egiten laguntzen duela, baina %19,9k kontrakoa dio, hau da, Udal Gobernuari oztopoak besterik ez dizkiola jartzen. %24,4k ez dute alde batera edo bestera egin, eta nabarmenki altua da erantzunik eman ez duten edo zalantzan dauden herritarren portzentajea (%38,0), oposizioaren jardunaren inguruko ziurgabetasuna edo iritzia emateko zailtasuna ageriz.
- Galdakaoko ordezkari politikoen ezagutza eta balorazioan alde nabarmenak daude. Ezagunena alkatea bera da, Iñigo Hernando (EH Bildu), herritarren %72,1ek ezagutzen baitute, eta gainera, baloraziorik altuena du: 7,6ko batez bestekoa. EH Bilduko beste ordezkari bat, Edurne Espilla, %38k ezagutzen dute eta 7,1eko balorazioa jasotzen du, oso positiboa ere bai.
- Iñaki Urgoiti (UH-Usansolo Herria) %24,1ek ezagutzen dute eta 6,9ko nota du; ezagutza txikiagoa izan arren, balorazio ona jasotzen du. Toño Gonzalez (Auzoak) %33,4k ezagutzen dute eta bere balorazioa 6,1 da. EAJko Ainhoa Agirregoikoak ezagutza maila nahiko zabala du (%44), baina balorazio apalagoa jaso du (4,9). Azkenik, PSEko Victor Trimiñok ezagutza txikiena du (%22,8) eta 5,2ko balorazioa, erdibidekoa.

UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

- Inkestan zenbait zinegotzi edo herri mailako ordezkari gehiago ere aipatu dituzte inkestatuek, modu espontaneoan, eta gehienak balorazio positiboa eginez. Asier Eguiraun izan da gehien aipatutako zinegotzia (9 aipamen), eta ondoren datoz Amets Iturbe (5), Ane Valencia (3) eta Monica Bailon (2). Beste batzuk, hala nola Asier (abizena zehaztu gabe), Ibon Uribe, Iñaki (abizena gabe), Asier Korta eta Alberto Ealo, aipamen bakanak jaso dituzte (1 edo 2).
- Udal gobernuaren kudeaketaren balorazio orokorra ikusita, eremu gehienetan posizio baikorra nagusitzen da. Kale garbiketan (%70,7), kultur eskaintzan (%64,9), ingurumena eta naturaren zaintzan (%63,5), kirola eta aisialdian (%54,3), auzoetako baliabideetan (%53,9), komunikazioan (%53,6), herritarren parte hartzean (%50,5), hirigintzan eta obretan (%48,4) eta gizarte zerbitzuetan (%45,8) herritarren gehiengoak kudeaketa ona edo nahiko ona dela uste dute. Etxebizitzaren inguruko neurrietan (%40,2) eta bereziki enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapenean (%34,8) balorazio positiboak txikiagoak dira.
- Balorazio negatiboen batura kontuan hartuta, etxebizitzaren arloan (%29,1) dago kezka handiena. Auzoetako baliabideetan (%23,0), kirol eta aisialdian (%22,0), kale garbiketan (%20,0), hirigintza eta obrak (%18,7) eta, baita herritarren parte hartzean (%14,4) ere. Beste eremuetan txarren balorazioak portzentaje txikiagoak dira.
- Udal gobernuaren balorazio orokorra oso positiboa da hainbat aspektutan. Herritarren %67,8k lidergo gaitasun altua aitortzen dio, eta %72,1ek akordioak lortzeko gaitasun handia ikusten dute. Zintzotasunari dagokionez, %66,8k balorazio altua eman dio, eta gestiorako gaitasunari dagokionez, %69,4k uste dute gaitasun handia dagoela. Herritarren arazoei buruzko hurbiltasunari dagokionez, ehunekoa apur bat txikiagoa da (%64,1), baina oraindik ere gehiago argia da.
- Udal gobernuaren gaitasunak batez besteko puntuazioetan neurtuta, 6,7 eta 7,1 arteko balioak lortzen ditu, hau da, gutxi gorabehera "ona" eta "nahiko ona" artean dauden ebaluazioak. Lidergoan puntuazio altuena du (7,1). Akordioak lortzeko gaitasuna eta gestiorako gaitasuna ere antzeko mailatan daude (7,0 eta 6,9), hau da, herritarrek gobernu adostasunak bilatzeko eta administrazio lana modu egokian kudeatzeko gaitzat jotzen dute.

UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

- Zintzotasunari emandako puntuazioa (6,9) ere ona da. Azkenik, herritarren arazokiko hurbiltasuna puntuazio baxuena jasotzen du (6,7), nahiz eta oraindik ere maila positiboa izan. Oro har, batez bestekoek erakusten dute Udal Gobernuarekiko konfiantza sendoa dagoela eta bere gaitasunak ongi baloratzen direla, nahiz eta hurbiltasunaren alorrean apur bat gehiago lantzeko aukerak egon.
- Udalaren agintaldi honetan (2023tik) egindako kudeaketaren balorazioa oro har positiboa da. Herritarren %68,7k puntuazio altua eman dio (7tik 10era), eta %27,4k tarteko balorazioa jarri dio (4 eta 6 artean). Bakarrik %3,9k eman dio puntuazio baxua (0 eta 3 artean). Batez besteko puntuazioa 6,9koa da, hau da, maila ona.


UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Galdakaoko arazoak konpontzen ari da	111	29,5
Badaki nola konpondu Galdakaoko arazoak, baina denbora gehiago behar du	150	39,8
Ez daki nola konpondu Galdakaoko arazoak	41	10,9
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	21	5,5
ED/EE	54	14,4
Guztira	378	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioaren lanari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Galdakaoko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	67	17,6
Udal Gobernuari kritika hutsa eta oztopoak jarri besterik ez du egiten	75	19,9
Ez bat ez beste	92	24,4
ED/EE	144	38,0
Guztira	378	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Alkate eta bozeramaileen ezagutza eta balorazioak

	Ezagutza		Balorazioa	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Batez bestekoa	n
Iñigo Hernando Arriandiaga (Alkatea- EH BILDU)	273	72,1	7,6	249
Edurne Espilla (EH Bildu)	143	38,0	7,1	120
Iñaki Urgoiti (UH-Usansolo Herria)	91	24,1	6,9	66
Toño Gonzalez (Auzoak)	126	33,4	6,1	101
Ainhoa Agirregoikoa (EAJ)	166	44,0	4,9	134
Victor Trimiño (PSE)	86	22,8	5,2	67

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Alkate eta bozeramaileen balorazioak

	Iñigo Hernando Arriandiaga (Alkatea- EH BILDU).		Edurne Espilla (EH Bildu)		Iñaki Urgoiti (UH-Usansolo Herria)		Toño Gonzalez (Auzoak)		Ainhua Agirregoikoa (EAJ)		Victor Trimiño (PSE)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso balorazio ona (9-10)	70	25,7	33	22,9	15	16,2	14	11,0	7	4,1	2	2,0
Balorazio ona (7-8)	129	47,2	54	37,8	32	35,1	38	29,9	30	17,8	22	25,4
Erdipurdiko balorazioa (4-6)	41	15,1	23	16,0	16	17,8	35	28,1	64	38,4	31	36,3
Balorazio txarra (0-3)	9	3,3	10	6,9	3	3,5	14	11,2	34	20,6	12	14,5
ED-EE	24	8,8	24	16,5	25	27,3	25	19,8	32	19,1	19	21,9
Guztira	273	100,0	143	100,0	91	100,0	126	100,0	166	100,0	86	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Beste zinegotziren bat aipatu nahiko zenuke eta bere lana baloratu?

	Aipamenak
Asier Eguiraun	9
Ametz Iturbe	5
Ane Valencia	3
Monica Bailon	2
Asier (abizena zehaztu gabe)	2
Ibon Uribe	1
Iñaki (abizena zehaztu gabe)	1
Asier Korta	1
Alberto Ealo	1

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



* Zenbakizko baloraziorik jaso ez badute ere, aipamen guztien kasuan komentario positiboak izan dira.


UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETAREN BALORAZIOA EREMU DESBERDINETAN

Udal gobernuaren kudeaketaren balorazioa eremu desberdinetan

	Kale garbiketa	Kultur eskaintza	Ingurumena eta naturaren zaintza	Kirola eta aisialdia	Zure auzoak udaletik jasotzen dituen baliabideak	Komunikazioa (ondo informatzen den edo..)	Herritarren parte hartzea	Hirigintza eta obrak	Gizarte Zerbitzuak	Etxebizitzaren inguruko neurriak	Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena
Oso ona	17,1	14,3	7,9	9,6	6,1	8,8	10,4	5,1	4,7	5,5	1,9
Nahiko ona	53,6	50,7	55,6	44,7	47,9	44,8	40,1	43,3	41,1	34,7	32,9
Ez ona ez txarra	8,0	13,1	13,5	15,6	17,3	21,0	19,1	16,3	17,0	16,4	24,2
Nahiko txarra	17,8	7,0	10,3	18,6	18,3	9,8	10,0	13,8	11,1	19,0	10,2
Oso txarra	2,2	1,2	1,2	3,5	4,7	3,0	4,4	4,9	1,6	10,2	1,4
ED/EE	1,3	13,6	11,5	8,0	5,7	12,6	15,9	16,6	24,5	14,3	29,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oso ona + Ona	70,7	65,0	63,5	54,3	54,0	53,6	50,6	48,4	45,9	40,2	34,8

Iturria: Aztiker, Galdakako legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2025




UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIOA HAINBAT ASPEKTUTAN

Udal gobernuaren inguruko balorazioa hainbat aspektutan

	Lidergoa izateko gaitasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna		Zintzotasuna		Gestiorako gaitasuna		Herritarren arazoekiko hurbiltasuna	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Altua (7-10)	187	67,8	180	72,1	193	66,8	192	69,4	204	64,1
Erdipurdikoa (4-6)	77	28,0	56	22,4	77	26,6	70	25,2	83	26,1
Baxua (0-3)	12	4,2	14	5,5	19	6,6	15	5,4	31	9,8
Guztira	275	100,0	249	100,0	289	100,0	277	100,0	318	100,0
Batez bestekoa	7,1		7,0		6,9		6,9		6,7	


Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETAREN BALORAZIOA EREMU DESBERDINETAN

Udal gobernuaren inguruko balorazioa hainbat aspektutan





UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDALAK AGINTALDI HONETAN EGINDAKO LANAREN BALORAZIO OROKORRA

Esadazu, mesedez, nola baloratzen duzun oro har Udalak agintaldi honetan egindakoa (2023tik), 0tik 10erako eskala erabiliz. 0ak esan nahi du oso gaizki ari dela eta 10ak oso ondo ari dela

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Altua (7-10)	237	68,7
Erdipurdikoa (4-6)	95	27,4
Baxua (0-3)	13	3,9
Guztira	345	100,0
Batez bestekoa	6,9	

Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



GALDAKAOKO UDALAREN PROIEKTUEN INGURUKO BALORAZIOA

- Herritarrek datozen urteetan udal proiektuen artean garrantzi handiena eman diote herriko ibai ertzak aisialdirako gune modura indartzeari eta merkataritzarako dirulaguntzak zabaltzeari, biak batez besteko 8,4ko puntuazioarekin. Kirol instalazio berriak eraikitzea eta herri inklusiboago bat eraikitzea ere oso garrantzitsuak iruditu zaizkie, 8,3 eta 8,2ko balioekin hurrenez hurren. Zergak eta tasa publikoak errentaren arabera egokitzea (7,8) ere aipagarria da. Beste proiektu garrantzitsu batzuk aparkaleku berria eraikitzea (7,7), hondakinen bilketa pneumatikoa zabaltzea (7,6) eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide seguruak sortzea edo hobetzea (7,6) dira. Erabilera anitzeko lokalak egokitzea eta igerilekuak estaltzea garrantzi apalagoa dute, 7,5 eta 7,0ko batez bestekoekin.
- Lehentasunari dagokionez, herri inklusiboagoaren eraikuntza (%34,8) eta kirol instalazio berriak (%28,9) dira gehien nabarmentzen direnak.
- Oro har, galdakoztar gehienek (%70,7) uste dute gaur egun oinez ibiltzea errazagoa dela herrian, irisgarritasuna hobetzeko egindako jardueren ondorioz (igogailuak, arrapalak, espaloi zabalagoak, etab.). %26,7k uste du berdin jarraitzen duela eta %2,6k zailagoa dela dio.
- Irisgarritasun beharrak auzoka aztertuta, Tximelarre da lehen beharrik handiena duen auzotzat jotzen dena (%19,0), eta ondoren Zuatzaurre (%12,3), Zubiaurretaurren-J.S. Elkano (%11,7) eta Olabarrieta (%11,7) agertzen dira. Bigarren aukera gisa ere Tximelarre (%12,0) eta Zuatzaurre (%10,8) nabarmentzen dira. Hala ere, %27,9k (lehen aukera) eta %49,8k (bigarren aukera) ez du iritzirik edo ez du erantzun.

GALDAKAOKO UDALAREN PROIEKTUEN INGURUKO BALORAZIOA


UDALAK AURRERA ERAMAN DITZAKEEN PROIEKTUEN GARRANTZIA MAILA ETA LEHENTASUNA

Udalak datozen urteetan martxan jarri ditzakeen proiektuen garrantzia maila

	Garrantzia maila		Lehentasuna	
	Batez bestekoa	n	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ibai ertzak aisialdi gune gisa indartu, Máximo Moreno barne (b)	8,4	158	43	27,0
Merkataritzarentzat dirulaguntzetan sakondu, lokalak berritu, modernizatu eta denda gutxi dauden auzoetan zabaltzeko. (a)	8,4	170	48	24,4
Kirol instalazio berriak eraikitzea (b)	8,3	165	46	28,9
Herri inklusiboagoa eraiki, desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokituta (a)	8,2	188	68	34,8
Zergak eta tasa publikoak errentaren arabera egokitu (a)	7,8	177	23	11,8
Berezikoetxen lurpeko aparkaleku berria eraiki (b)	7,7	155	46	28,7
Hondakinen bilketa pneumatikoa herriko eremu gehiagotara zabaltzu (b)	7,6	162	19	11,8
Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide seguru eta irisgarriak sortu edo hobetu (a)	7,6	191	30	15,2
Erabilera anitzeko lokalak egokitu herritarren eta elkarteen jardueretarako (a)	7,5	181	4	2,1
Elexaldeko igerilekuak estali, urte osoan erabiltzeko moduan (b)	7,0	159	6	3,6

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025

Garrantzia 0-10 eskalan eta zein bik eduki beharko luketen lehentasuna




GALDAKAOKO UDALAREN PROIEKTUEN INGURUKO BALORAZIOA

GALDAKAOKO IRISGARITASUNAREN BALORAZIOA

Zure ustez, Galdakaon oinez ibiltzea errazagoa da orain, zailagoa edo berdin jarraitzen du? (Adibidez: igogailuak eta arrapalak jarri, espaloiak zabaltu, zebra-bideak eta espaloien altuera berdindu direlako...)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errazagoa	252	70,7
Berdin	95	26,7
Zailagoa	9	2,6
Guztira	356	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin Udala proiektu batzuk lantzen ari da, hautatik zein auzok uste duzu duela behar handiena?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Tximelarre	69	19,0
Zuatzaurre	45	12,3
Zubiaurretaurren-Juan Sebastian Elkano	43	11,7
Olabarrieta	42	11,7
Urtebieta	34	9,3
Zabalgane	30	8,1
ED/EE	102	27,9
Guztira	365	100,0


Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



Eta bigarren lekuan?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Tximelarre	44	12,0
Zuatzaurre	39	10,8
Urtebieta	31	8,4
Zubiaurretaurren-Juan Sebastian Elkano	30	8,3
Zabalgane	20	5,5
Olabarrieta	19	5,2
ED/EE	182	49,8
Guztira	365	100,0

Iturria: Aztiker, Galdakaoko agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



ETXEBIZITZAREN INGURUKO NEURRIAK


- Herritarrek etxebizitza eskuratzeko neurri nagusien inguruan duten iritzia orokorrean oso aldekoa da. Neurri gehienek babesak jasotzen dute, eta erantzunetan "erabat ados" edo "ados" daudenak gehiengo argia dira kasu guztietan.
- Gazteentzako alokairu laguntzak handitzearen alde daude gehien (%86,5 ados edo erabat ados), baita babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzea (%85,9) eta lurzoru publikoa erabilera sozialerako baliatzea (%83,6) ere. Etxebizitza turistikoen arautzeari eta mugatzeari ere babes handia ematen diote (%77,6 aldeko iritzia).
- Neurri teknikoago edo eztabaidatuago batzuk, hala nola lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko ordenantza (%74 ados edo erabat ados), edo alokairu prezioak mugatzeko neurriak (%69,5), eta etxebizitza hutsen gaineko kanon berezia ezartzea (%60,7) ere aldeko iritzi nabarmena jasotzen dute, nahiz eta kasu hauetan desadostasuna zertxobait handiagoa den.
- Laburbilduz, herritar gehienek etxebizitza eskuragarriagoa egiteko neurri publikoen beharra ikusten dute, eta proposatutako politika gehienak ondo baloratzen dituzte.

ETXEBIZITZAREN INGURUKO NEURRIAK

Etxebizitza arazo larria da gaur egun, bai jabetzan eta bai alokatzeko, ez dagoelako eskaintza nahikorik edo prezioak oso altuak direlako. Eusko Jaurlaritzak, Azpeitiako, Zornotzako edota Donostiako udalek, adibidez, arazoari aurre egiteko hauekako neurri batzuk ezarri dituzte. Zer iritzi duzu honako neurri hauen inguruan?

	Gazteentzako alokairu laguntzak handitzea, diru-sarreraren arabera		Babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzea		Lurzoru publikoa erabilera sozialerako (etxebizitza publikoak, dotazionalak edo kooperatiboak) baliatzea		Etxebizitza turistikoek (Airbnb, etab.) arautzea eta mugatzea		Lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko ordenantza garatu		Alokairu prezioak mugatzeko neurriak ezartzea gune tenkatuetan		Etxebizitza hutsen gaineko kanon berezi bat ezartzea, jabeek merkaturatu dezaten sustatzeko	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erabat ados	148	40,7	145	39,7	107	29,2	141	38,5	111	30,4	112	30,8	89	24,3
Ados	167	45,8	169	46,3	198	54,4	143	39,1	159	43,6	141	38,8	133	36,4
Ez ados, ez deasados	16	4,4	17	4,6	18	5,0	26	7,1	34	9,2	27	7,4	48	13,0
Desados	6	1,5	13	3,5	14	4,0	23	6,2	22	6,1	43	11,9	55	15,1
Erabat desados	6	1,5			3	1,0	15	4,0	5	1,2	34	9,4	21	5,7
ED/EE	22	6,1	22	6,0	24	6,5	19	5,1	34	9,5	6	1,7	20	5,5
Guztira	365	100,0	365	100,0	365	100,0	365	100,0	365	100,0	365	100,0	365	100,0
Erabat ados + Ados	86,5		85,9		83,6		77,6		74,0		69,5		60,7	

Iturria: Aztiker, Galdakako agintaldi erdiko balorazio inkesta, 2025



ONDORIOAK

2025eko inkestaren emaitzetatik hainbat ondorio nagusi atera daitezke Galdakaoko herritarren ikuspegia eta lehentasunak kontuan hartuta:

1. Bizitzeko leku modura asebetetze handia dago: Herritar gehienak asebeteta daude Galdakaorekin bizitzeko toki gisa, eta balorazio positiboak nagusi dira.
2. Egoeraren balorazio orokorra nahiko positiboa da: Galdakoztar gehienek uste dute gaur egungo egoera ona edo nahiko ona dela, eta gehienek ez dute epe laburrean aldaketa handirik espero.
3. Aparkalekuen eta garraioaren arazoa lehentasunezkoak dira: Aparkaleku falta eta garraio publikoko gabeziak dira herritarrek gehien aipatzen dituzten arazoak, bai orokorrean bai pertsonalki.
4. Etxebizitza arazo larritzat hartzen da: Etxebizitzaren prezio altuak eta eskaintza urriak kezka handia sortzen dute herritarren artean, eta horren inguruko politika publikoek interes handia pizten dute.
5. Etxebizitzarako neurri publikoek babes handia dute: Herritar gehienak alde agertzen dira etxebizitza eskuratzeko politika publikoen alde, eta hainbat neurriren inguruan adostasun handia nabarmentzen da.
6. Udalaren jardunarekiko konfiantza zabala da: Udalak arazoak konpontzeko gaitasuna duela uste dutenen kopurua handia da, nahiz eta askok uste duten denbora gehiago behar dela.
7. Alkateak eta gobernuko zenbait kidek ezagutza eta balorazio altuak dituzte: Alkatearen eta beste zinegotzi batzuen ezagutza maila handia da, eta balorazioak oro har positiboak dira.
8. Udal jarduera eremuen balorazio desberdina: Kultura, kale garbiketa edo ingurumenaren zaintza bezalako arloetan jarduna hobeto baloratua da; aldiz, enplegua edo etxebizitza bezalako gaitan ikuspegi kritikoa handiagoa nabaritzen da.
9. Etorkizuneko proiektuek interesa pizten dute: herritarrek proiektu berrien garrantzia handia aitortzen dute, bereziki aisialdirako espazioak, merkataritza biziberritzea eta inklusioa sustatzeko egitasmoak.

Ondorioz, herritarrek hainbat kezka nabarmen dituzte —bereziki mugikortasuna eta etxebizitza—, baina oro har, Galdakaoko bizitza kalitatea eta udalaren jarduna ondo baloratzen dituzte, eta etorkizuneko ekimenei irekita daude.

GALDAKAON, HERRITARREN IRITZIA JASOTZEKO, AGINTALDI ERDIKO INKESTA

IKERKETA KUANTITATIBOA